

Donostian, 2017ko abenduaren 15ean

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### MIRAMAR JAUREGIARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martinek, Irabazi Donostia taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetan PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN Batzordean Miramar jauregiaren gainean egindako interpelazioaren harira.

### JUSTIFIKAZIOA

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, alkateak Miramar jauregian hotel bat eta jatetxe bat jartzeko aukerari buruz egindako adierazpenei buruz interpelatu genuen.

Gure interpelazioari erantzunez, alkateak esan zuen Kursaalak egindako azterlanen arabera hotel bat eta jatetxe bat jartzea dela jauregiak errentagarritasun ekonomikoa lortzeko eta gaur egun duen defizita saihesteko aukera bakarra.

Antza, Donostiako Sustapena ere jauregiaren balizko erabilerak aztertzen aritu da. Edonola ere, eskatu ditugun arren, ez ditugu eskuratu azterlan horiek, ez eta Kursaalak egindakoak ere. Zehazki, Kursaalako azterlanei dagokienez, gure ezustea are handiagoa izan da. Izan ere, esan digute Alkatetzan ez dituztela, nahiz eta alkatea Kursaalako Administrazio Kontseiluko kidea izan. Alegia, beste behin ere, gardentasun falta erabatekoa.

Gure taldearentzat, ezinbestekoa da alternatiba bat bilatzea Miramar jauregia ostalaritzarako erabili ez dadin; izan ere, horrek guneko publiko bat pribatizatzea ekarriko du, eta, gainera, guneko horrek babes-maila handiena du.

Horregatik guztiagatik,

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, batetik, behin betiko baztertzeke Miramar jauregian hotel bat eta jatetxe bat jartzeko aukera, eta, bestetik, beste alternatiba batzuk bilatzeko.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Miramar jauregiaren balizko erabileren gainean egin diren azterlanen informazio osoa aditzera emateko.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio herritarrei Miramar jauregiaren balizko erabileren gaineko erabakietan parte hartzeko aukera eman diezaiela.

Sin.: Amaia Martin,  
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.